


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa arrakastatsua izateko eta balorezko proposamenak egin ahal izateko, edozein negoziotan bezala, zenbait funtsezko jarduera izatea nahitaezkoa dugu. Jarduera hauei esker, diru sarrerak lortu eta bezero potentzialetara iritsiko gara. Funtsezko jarduerak horrela banatzen dira; ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak.



Aplikazioaren sorkuntza bitan banatuko dugu, lehenengoa, diseinua, Maddi Villalainek egingo duena eta bigarrena, diseinu horrekin aplikazioa sortzea, Maddi Urbizuk egingo duela.

Plataformako arazoak, esan bezala, informatiko batekin kontaktuan egongo garenez, edozein arazo izanez gero berak konponduko digu. Aldiz, bezeroen arazoak, zalantzak... Maddi Villalainek konponduko ditu, izan ere, hizkuntzatan oso trebea da eta ez du arazorik izango, ezta bezeroekiko harremanak izateko ere. Deiak eta korreo elektronikoak astelehenetik ostiralera 09:00tik 14:00etara erantzungo ditu, mugikorra eta korreoa lanekoak izango baitira eta ordu horietan soilik erabiliko ditugu. Hala eta guztiz ere, dei galduren bat badago, ikusi bezain laister deituko diegu.

Plataformako jardueretan, Maddi Urbizu arituko da. Informatika gustuko duelako eta gainera, informatika kurtso bat du eginda. Aplikazioan bera arituko da, bezeroentzat beharrezkoa dena bertan jarriz. Adibidez, harremanetan jartzeko beharrezko telefono zenbakia, posta elektronikoa eta gure enpresari eta Etxarrerri buruzko informazio ugari txertatu; non kokatzen garen, zein den gure helburua...



Maddi Villalain ere plataformako jardueretan arituko da, baina bere kasuan publizitatean. Hasieran gure aplikazioaren inguruko publizitatea egingo dugunez, berak sortu eta diseinatuko ditu. Gainera, non kokatu pentsatu eta gure publizitatea kokatu behar dugun lekuekin kontaktuan jarriko da.



Azkenik, Maddi Urbizu arduratuko da finantzen inguruan, hau da, aurrekontuak, nominak, etekinak, baimenak, diru-sarrerak, errenta aitortpena... koordinatuko ditu, izan ere, gustuko duen jarduera da eta gainera oso trebea da.